



Esp.kodea: 2018RBAR0014

Gaia: UDALA - 2017 URTEKO  
AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA  
Hasiera eguna: 2018/03/20

## ZIURTAGIRIA

Ana Belén Hidalgo Corral ANDREA, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA

### NEUK ZIURTATUA:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko martxoaren 22an egindako bilkuran, Alkatezak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

### “ARRASATEKO UDALAREN 2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA (2018RBAR0014)”

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udal Kontu-hartzaileak 2017ko aurrekontuaren likidazioaren berri eman du, eta zenbaki laburpena da hauxe:

### 2017KO AURREKONTU EMAITZAREN KALKULUA

A	Eskubide garbiak, 2017eko ekitaldiko likidazioa	30.964.698,49 €
B	Onartutako obligazio garbiak, 2017	29.396.961,84 €
C	2017eko ekitaldiko aurrekontu operazioen emaitza (A – B)	1.567.736,65 €
D	Deuseztatutako gastuen soberakinen obligazioak	5.902,32 €
E	Deuseztatutako hondarren diru-sarreren eskubideak	-51.765,92 €
F	Itxitako ekitaldien aurrekontu operazioen emaitza (D + E)	-45.863,60 €
G	2017ko ekitaldiko aurrekontu emaitza (C + F)	1.521.873,05 €
H	Doitzea:	
	H.1 – 2016ko likidazioko diruzaintzako soberakinez finantzatutako obligazio onartuak (eranskinak)	2.229.858,78 €
	H.2 - 2017eko ekitaldiko finantza aldean doikuntza (eranskina 2)	-16.787,88 €
	DOITZEA GUZTIRA (H.1 + H.2)	2.213.070,90 €



Esp.kodea: 2018RBAR0014

Gala: UDALA - 2017 URTEKO  
AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA  
Hasiera eguna: 2018/03/20

<b>I AURREKONTU EMATZA DOITUA (G + H)</b>	<b>3.734.943,95 €</b>
<b>2017KO LIKIDAZIOKO DIRUZAINTZAREN SOBERAKINA</b>	
<b>1 KUTXAN DAUDENAK, 2017-12-31n</b>	<b>11.904.923,25 €</b>
2.1 Ekitaldi arruntean kobratzeke daudenak	2.093.463,20€
2.2 Itxitako ekitaldietan kobratzeke daudenak	2.883.782,58 €
2.3 Aurrekontukoak ez diren zorrak	393.188,26 €
<b>KOB RATZEKE DAUDEN SALDOAK GUZTIRA</b>	
<b>2 (2.1+2.2+2.3)</b>	<b>5.370.434,04 €</b>
3.1. Ekitaldi arruntetako hartzekodunak	2.077.183,70 €
3.2 Itxitako ekitaldietako hartzekodunak	31.070,00 €
3.3 Diru-sarrereren aurrekontuaren hartzekodunak	--- €
3.4 Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak	1.467.097,91 €
<b>3 ORDAINTZEKE DAUDEN SALDOAK GUZTIRA (3.1 + 3.2 + 3.3 + 3.4)</b>	<b>3.575.351,61 €</b>
<b>4 DIRUZAINTZAKO SOBERAKIN GORDINA (1+2 - 3)</b>	<b>13.700.005,68 €</b>
<b>5 DOITZEA:</b>	
- AFEKTATUTAKO FINANTZAKETA (Ikusi eranskina-3.a)	-119.079,10 €
- ZALANTZAZKO KOBRAKETA (Ikusi eranskina - 4)	-2.910.466,92 €
<b>DOITZEA GUZTIRA (5)</b>	<b>-3.029.546,02 €</b>
<b>6 DIRUZAINTZAKO SOBERAKINA, GASTU OROKORRETARAKO DOITUA (4-5)</b>	<b>10.670.459,66 €</b>



Esp.kodea: 2018RBAR0014

Gaia: UDALA - 2017 URTEKO  
AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA  
Hasiera eguna: 2018/03/20

Bestalde, udal sailek hainbat eskaera egin dituzte, 2017ko aurrekontuko gastu kate jakin batzuk (berariazko finantzaketa duten bigarren kapituluko gastuak, inbertsioen kapituluko kontu-sailez gain), onartutako obligazio aldira iritsi ez direnak (onartutako faktura edo ziurtagiria), diruzaintzako soberakinaren kontura finantzatu daitezten. Gastu kate horien xehetasuna agertzen da diktamen honen eranskin moduan, eta 6.795.144,52€ko zenbatekoa da (eranskineko 5. agiria, geroko ekitaldien konturako konpromiso kredituak deskontatu eta gero).

Eskaera horiei dagokienez, udal kontu-hartzaileak adierazi du ez dagoela legezko trabarik edo eragozpenik eskatutako txertaketa onartzeko, kapital eragiketei dagozkien gastuak baitira edo diru-sarrera espezifikoaz finantzatzen direlako eta, halaber, aplikatzekoa den legè araudiak (21/2003 FA, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuena, 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontua Egonkortu eta Finantzari Eustekoa, 1/2013 FA, Gipuzkoako Toki Erakundeen aurrekontua egonkortu eta finantzari eustekoari buruzko finantza babesaren eskumena garatzen duena) nahiz 2017ko aurrekontua betetzeko arauak eskatutako baldintzak betetzen baitituzte.

2017ko aurrekontuaren likidazioaren proposamenari buruz eta 2018ko aurrekontura kredituen zerrenda txertatzeari buruz, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare Batzordeak, EAJ-PNV, EH-BILDU, PSE-EE eta IRABAZI ARRASATE Udal talde politikoen ordezkarien aldeko botoekin eta BALEIKE Udal taldearen ordezkariaren abstentzioarekin, aldeko txostena eman du eta honako akordio proposamena egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

- 1) 2017ko udal aurrekontuaren likidazioa onartzea, udal kontu-hartzaileak egindako zenbaki laburpenaren arabera.
- 2) Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.
- 3) Onartzea 2018ko aurrekontuan sartzea 2017ko aurrekontutik datozen kredituko zenbait gastu- kreditu, 6.795.144,52 euroko kopuruagatik, honekin batera doan zerrendaren arabera. Horietatik, zati bat, zehazki, 657.653,80 euro, edo lotutako diru-sarreraren bidez sortutako diruzaintza gerakinaz finantzatzen da (119.079,10 euro) edo sarrera konpromisoekin finantzatzen da (538.484,70 euro). Gainerakoa, 6.137.580,72 euro, 2017ko aurrekontuaren likidaziotik datorren gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaz finantzatuko litzateke.
- 4) Indarrean dagoen aurrekontu araudian jasotakoa betetzeko, akordio honen berri ematea Udalbatzarrari, egingo den hurrengo bilkuran, eta, aldi beran, adieraztea 2017ko aurrekontuaren likidazioa eta 2018rako kredituen txertaketa (akordio honetako 3. zenbakian aurreikusia) onartu eta gero, oraindik egongo litzatekeela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin kopuru bat erabili gabe, 4.532.878,94 eurokoa.”



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Idazkaritza ■



Esp.kodea: 2018RBAR0014

Gaia: UDALA - 2017 URTEKO  
AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA  
Hasiara eguna: 2018/03/20

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2018ko apirilaren 9a.

O.E.

Alkatea





Esp.kodea: 2018RBAR0014

Gaia: UDALA - 2017 URTEKO  
AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA  
Hasiera eguna: 2018/03/20

## ZIURTAGIRIA

Ana Belén Hidalgo Corral JAUNA/ANDREA, ARRASATEKO UDAL  
AGURGARRIKO IDAZKARIA

### NEUK ZIURTATUA:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko maiatzaren 10an egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

“Udalaren 2017ko aurrekontuaren likidazioaren onarpenari buruzko akordioaren zuzenketa proposamena (2018RBAR0014)

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare Batzordeburuaren ondoko proposamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“2017 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari buruz, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko martxoaren 22an egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskumeneren eskuordetzearen arabera, akordio hau hartu zuen:

### “ARRASATEKO UDALAREN 2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

*Udal Kontu-hartzaileak 2017ko aurrekontuaren likidazioaren berri eman du, eta zenbaki laburpena da hau:*

#### 2017KO AURREKONTU EMAITZAREN KALKULUA

A	Eskubide garbiak, 2017eko ekitaldiko likidazioa	30.964.698,49 €
B	Onartutako obligazio garbiak, 2017	29.396.961,84 €
C	2017eko ekitaldiko aurrekontu operazioen emaitza (A – B)	1.567.736,65 €
D	Denseztatutako gastuen soberakinen obligazioak	5.902,32 €
E	Denseztatutako hondarren diru-sarrerren eskubideak	-51.765,92 €
F	Itxitako ekitaldien aurrekontu operazioen emaitza (D + E)	-45.863,60 €
G	2017ko ekitaldiko aurrekontu emaitza (C + F)	1.521.873,05 €
H	Doitzea:	



Esp.kodea: 2018RBAR0014

Gaia: UDALA - 2017 URTEKO  
AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA  
Hasiera eguna: 2018/03/20

H.1 – 2016ko likidazioko diruzaintzako soberakinez finantzatutako obligazio onartuak (eranskinak)	2.229.858,78 €
H.2 - 2017eko ekitaldiko finantza aldean doikuntza (eranskina 2)	-16.787,88 €
DOITZEA GUZTIRA (H.1 + H.2)	2.213.070,90 €
<b>I AURREKONTU EMAITZA DOITUA (G + H)</b>	<b>3.734.943,95 €</b>
<b>2017KO LIKIDAZIOKO DIRUZAINZAREN SOBERAKINA</b>	
<b>1 KUTXAN DAUDENAK, 2017-12-31n</b>	<b>11.904.923,25 €</b>
2.1 Ekitaldi arruntean kobratzeke daudenak	2.093.463,20€
2.2 Itxitako ekitaldietan kobratzeke daudenak	2.883.782,58 €
2.3 Aurrekontukoak ez diren zorrak	393.188,26 €
<b>KOB RATZEKE DAUDEN SALDOAK GUZTIRA</b>	
<b>2 (2.1+2.2+2.3)</b>	<b>5.370.434,04 €</b>
3.1. Ekitaldi arruntetako hartzekodunak	2.077.183,70 €
3.2 Itxitako ekitaldietako hartzekodunak	31.070,00 €
3.3 Diru-sarreraren aurrekontuaren hartzekodunak	-- €
3.4 Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak	1.467.097,91 €
<b>ORDAINTZEKE DAUDEN SALDOAK GUZTIRA (3.1 + 3.2 + 3.3 + 3.4)</b>	<b>3.575.351,61 €</b>
<b>4 DIRUZAINZAKO SOBERAKIN GORDINA (1+2 - 3)</b>	<b>13.700.005,68 €</b>
<b>5 DOITZEA:</b>	
- AFEKTATUTAKO FINANTZAKETA (Ikusi eranskina-3.a)	-119.079,10 €
- ZALANTZAZKO KOBRAKETA (Ikusi eranskina - 4)	-2.910.466,92 €



Esp.kodea: 2018RBAR0014

Gaia: UDALA - 2017 URTEKO  
AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA  
Hasiera eguna: 2018/03/20

<b>DOITZEA GUZTIRA (5)</b>	<b>-3.029.546,02 €</b>
<b>DIRUZAINZAKO SOBERAKINA, GASTU 6 OROKORRETARAKO DOITUA (4-5)</b>	<b>10.670.459,66 €</b>

Bestalde, udal sailek hainbat eskaera egin dituzte, 2017ko aurrekontuko gastu kate jakin batzuk (berariazko finantzaketa duten bigarren kapituluko gastuak, inbertsioen kapituluko kontu-sailez gain), onartutako obligazio aldina iritsi ez direnak (onartutako faktura edo ziurtagiria), diruzaintzako soberakinaren kontura finantzatu daitezkeen. Gastu kate horien xehetasuna agertzen da diktamen honen eranskin moduan, via 6.795.144,52€ko zenbatekoa da (eranskineko 5. agiria, geroko ekitaldien konturako konpromiso kredituak deskontatu eta gero).

Eskaera horiei dagokienez, udal kontu-hartzaileak adierazi du ez dagoela legezko trabarik edo eragozpenik eskatutako txertaketa onartzeko, kapital eragiketei dagozkien gastuak baitira edo diru-sarrera espezifikoa finantzatzen direlako eta, halaber, aplikatzekoa den lege araudiak (21/2003 FA, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuena, 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontua Egonkortu eta Finantzarri Eustekoa, 1/2013 FA, Gipuzkoako Toki Erakundeen aurrekontua egonkortu eta finantzarri eustekoari buruzko finantza babesaren eskumena garatzen duena) nabiz 2017ko aurrekontua betetzeko arauak eskatutako baldintzak betetzen baitituzte.

2017ko aurrekontuaren likidazioaren proposamenari buruz eta 2018ko aurrekontura kredituen zerrenda txertatzeari buruz, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare Batzordeak, EAJ-PNV, EH-BILDU, PSE-EE eta IRABAZI ARRASATE Udal talde politikoan ordezkariren aldeko botoekin eta BALEIKE Udal taldearen ordezkariren abstentzioarekin, aldeko txostena eman du eta honako akordio proposamena egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

- 1) 2017ko udal aurrekontuaren likidazioa onartzea, udal kontu-hartzaileak egindako zenbaki laburpenaren arabera.
- 2) Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.
- 3) Onartzea 2018ko aurrekontuan sartzea 2017ko aurrekontutik datozen kredituko zenbait gastu- kreditu, 6.795.144,52 euroko kopuruagatik, honekin batera doan zerrendaren arabera. Horietatik, zati bat, zehazki, 657.653,80 euro, edo lotutako diru-sarreraren bidez sortutako diruzaintza gerakinaz finantzatzen da (119.079,10 euro) edo sarrera konpromisoekin finantzatzen da (538.484,70 euro). Gainerakoa, 6.137.580,72 euro, 2017ko aurrekontuaren likidaziotik datorren gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaz finantzatu litzateke.
- 4) Indarrean dagoen aurrekontu araudian jasotakoa betetzeko, akordio honen berri ematea Udaltzarrari, egingo den hurrengo bilkuran, eta, aldi beran, adieraztea 2017ko aurrekontuaren likidazioa eta 2018rako kredituen txertaketa (akordio honetako 3. zenbakian aurreikusia) onartu eta gero, oraindik egongo litzatekeela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin kopuru bat erabili gabe, 4.532.878,94 eurokoa."

2017 ekitaldiko kontu orokorren dokumentazioa osatzeko orduan, efektu esanguratsurik ez izan arren, antzeman da 2017eko aurrekontu emaitza doitua kalkulatzeko orduan akats numerikoak daudela aurrekontu emaitzari eragiten diotenak, konkretuki, 2017ko eskubide garbiak (handitu behar dira 708.946,49 eurotan, hasierako akordioan bikoiztu egin zelako ezabatutako eskubideen murrizketa) eta onartutako obligazioak (handitu behar dira 740,91 eurotan, gastu bat ekitaldiko gastu bat bezala konputatu beharrean, itxitako ekitaldien gastu atalari gaizki konputatu zitzaion). Bi akats horiek zuzendu eta gero, 2017ko aurrekontu emaitza doitua 4.443.149,53 eurotan gelditzen da (aurreko akordioan 3.734.943,95 eurokoa zen). Egindako akatsak ez dio eragiten gainontzeko atalei, ez diruzaintza gerakinaren kalkuluari, ez txertatutako kredituei, ezta ere, ondoren, gerakinaren kontura onartutako kreditu aldaketei.



Esp.kodea: 2018RBAR0014

Gaia: UDALA - 2017 URTEKO  
AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA  
Hasiera eguna: 2018/03/20

Dena den, kontuan hartuta, soilik kuantitatiboki bada ere, aldea esanguratsua dela, egoki ikusi da Aurrekontuari buruzko akordioa zuzentzea, aurrekontu emaitza doituari dagokionez, eta, datu zuzenak erabili eta gero, horrela geldituko da:

2017KO AURREKONTU EMAITZAREN KALKULUA

A	Eskubide garbiak, 2017eko ekitaldiko likidazioa	31.673.644,98 €
B	Onartutako obligazio garbiak, 2017	29.397.702,75 €
C	2017eko ekitaldiko aurrekontu operazioen emaitza (A - B)	2.275.942,23 €
D	Deuseztatutako gastuen soberakinen obligazioak	5.902,32 €
E	Deuseztatutako hondarren diru-sarrereren eskubideak	-51.765,92 €
F	Itxitako ekitaldien aurrekontu operazioen emaitza (D + E)	-45.863,60 €
G	2017ko ekitaldiko aurrekontu emaitza (C + F)	2.230.078,63 €
H	Doitzea:	
	H.1 - 2016Ko likidazioko diruzaintzako soberakinez finantzatutako obligazio onartuak (eranskinak)	2.229.858,78 €
	H.2 - 2017eko ekitaldiko finantza aldean doikuntza (eranskina 2)	-16.787,88 €
	DOITZEA GUZTIRA (H.1 + H.2)	2.213.070,90 €
I	AURREKONTU EMAITZA DOITUA (G + H)	4.443.149,53 €

Guzti horregatik, Tokiko Gobernu Batzarrari proposatzen diot:

- 2017ko aurrekontuaren likidazioari buruzko akordioaren zuzenketa onar dezala, aurrekontu emaitza doituari soilik eragiten diona.

- Zuzenketa honen berri Udal Plenoari eman beharko zaio, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare Batzordean berri eman eta gero”.

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2018ko maiatzaren 15a.

O.E.

